



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

LEHENDAKARITZA
PRESIDENCIA

Birmaniako oposizioko liderrari sostengua adierazteko erakunde-adierazpena

Eusko Legebiltzarrak erakunde-adierazpen bat irakurriko du bihar Birmaniako oposizioko lider eta Bakearen Nobel saria den Aung San Suu Kyi-ri (13 urte daramatza atxilo harturik) bere sostengua adierazteko.

Osoko bilkuraren amaieran, Legebiltzarreko lehendakariak Concha Pinós Birmania Bakearen Alde ekimeneko zuzendariari emango dio erakunde-adierazpena; horren ondoren, Concha Pinósek hedabideekin jardungo du.

Arantza Quiroga Eusko Legebiltzarreko lehendakariak erakunde-adierazpen bat irakurriko du bihar Birmaniako oposizioko lider eta Bakearen Nobel saria den Aung San Suu Kyi-ri sostengua adierazteko.

Aung San Suu Kyi Bakearen Nobel sariak Birmaniako erregimen militarren jazarpena jasan du 1990. urtetik eta hala eta guztiez ere bakearen eta askatasunaren aldeko borroka baketsuari eutsi dio. Giza eskubideen aldeko ekintzailea askatasunik gabe egon da 13 urtez azken 19 urteetan eta, maiatzaren 27rako espero zen haren zaintzapeko erresidentzia amaitzea eta askatzea. Baina, antza, berriz epaitzen ari dira, atea itxita, Rangún iparraldean dagoen espetxe batean, zaintzapeko erresidentziaren baldintzak urratzea aurpegiratuta.

Horregatik, biharko osoko bilkuran Concha Quirós Birmania Bakearen Alde ekimeneko zuzendaria izango da.

Eusko Legebiltzarreko lehendakariak osoko bilkura amaitu aurretik eta gai-zerrenda bukatuta irakurriko du adierazpena. Haren ondoren, Arantza Quirogak Concha Quirósi emango dio adierazpena; azkenik, Concha Quirósek hedabideen aurreko balorazio laburra egingo du.





Declaración institucional de apoyo a la líder de la oposición birmana

El Parlamento Vasco dará lectura mañana a una declaración institucional de apoyo a la líder de la oposición birmana y Nóbel de la Paz, Aung San Suu Kyi, 13 años arrestada

Al final del pleno la Presidenta del Parlamento hará entrega de la misma a la Directora de Birmania por la Paz, Concha Pinós, quien a continuación atenderá a los medios de comunicación

La Presidenta del Parlamento Vasco, Arantza Quiroga, dará lectura mañana a una declaración institucional de apoyo a Aung San Suu Kyi, líder de la oposición birmana y Nóbel de la Paz.

La Premio Nóbel de la Paz birmana, Aung San Suu Kyi, ha sido perseguida por el régimen militar de Birmania desde el año 1990 y aun así nunca ha cesado de luchar de manera pacífica por la paz y por la libertad. La activista de los derechos humanos ha permanecido privada de libertad durante 13 de los últimos 19 años y, para el 27 de mayo, esperaba la finalización de su residencia vigilada y su puesta en libertad. Pero ahora parece que nuevamente es juzgada a puerta cerrada en una prisión situada al norte de Rangún, por presuntamente cometer el delito de violar los términos de su residencia vigilada.

Por este motivo mañana viernes asistirá al pleno la Directora de Birmania por la Paz, Concha Quirós.

La declaración será leída por la Presidenta del Parlamento Vasco antes de finalizar el pleno y agotado el orden del día. Posteriormente Arantza Quiroga le hará entrega de dicha Declaración a Concha Quirós quien tiene previsto realizar una breve valoración ante los medios de comunicación.

